

# Estibalizko Santutegia

*El Santuario de Estibaliz, en un otero sobre la Llanada, ha sido durante siglos la atalaya simbólica de la religiosidad alavesa. Muy ligado a la Ciudad de Vitoria, ha gozado de las preferencias de gran parte de la Provincia. Es hoy, desde 1923, Monasterio benedictino. En torno a su iglesia románica han solido reunirse el pueblo creyente y las Instituciones civiles y religiosas.*

Aralarko San Migelekin batera, euskal Santutegi zaharrenetakoa da Estibalizko Andre Mariaren hau. Arabako Lautadaren bihotzean muino baten gainean ageri da Estibaliz, eta mende honetan beteko ditu bere mila urteak (1074...). 1923an koroatu zuten bertako Andre Mariaren irudia.

Azalpen labur honetan, hiru alde nagusi ditu Estibalizek berezikiago azpimarratzekoak: erromes herritarrek sortutako Santutegia da, monje beneditarrak ditu bere zaintzaile eta euskal artearen historian aparteko lekua du bertako eliza erromanikoak.

## **Santutegiaren historia apur bat**

Honelako beste kasu askotan bezala, Estibalizen istorio eta legenda zaharrik egon da, Santutegiaren sorrera azaltzeko; baina azken hamarkadetan argi hoberik ere egin dute historialariek sorrera hartako data eta zenbait zertzelada biltzeko.

Oso garaiz, 970.eko urtean, badago Auritiva Diego zeritzan Estibalizko konde bat. Eta urte bertsuetan jarri behar da gerora indar betean ageri zaigun tradizioa ere: Estibalizko leku hau aukeratu zen, garai haietan ohi zen bezala, liskar gaiztoan zebiltzan herritarren arteko auziak argitu eta epaitzeko; hortaz, Arabako justizia ofizialaren nolabaiteko "epaitegi" bilaka-

tu zen Estibaliz, beharbada, artean, benetako Santutegi bilakatzeko zegoena.

Estibalizko Monasterioaren lehen aipamena mende bete geroagokoa da (1074), eta orduan eta hurrengo mendean ere (1138) Monasterio hori Errioxa aldeko bi Monasterio handiren eskuetan ikusten dugu.

Hamabosgarren mendean egoera nahikoa aldatu zen Aguraingo Kondeak Estibalizen jabetasuna eta bertako zaingoa eskuratu zue-  
nean (1431), hurrengo hamarkadetan egoera hori bere indarrean egongo baita.

1542an, Santutegiaren Zaingoa Gasteizko Santiago Ospitalearen eskuetara etorri zen. 1606-1608an frantziskotar errekoletoen komentu bihurtu nahi izan zen arren, asmoak ez zuen aurrera egin, eta Estibaliz fraiderik gabe zegoen, beraz, erromesak eta bidarien kofradia bat nolabait hartaz arduratzen zirela. Gutxi-asko, hori izan zen egoera XX. mendea arte.

## **Beneditarrak Estibalizen**

Santutegiko Monasterio beneditarraren historiak bi garai ezberdin izan ditu: Erdi Arokoa (1074-1431) eta XX. mendekoa (1923...).

Lehen aldi hartan, gaurko Eukal Herriaz kanpoko beste bi Monasterio beneditarretatik zegoen Estibalizko monjeen bizitza, biak ere, esan dudanez, Errioxakoak. Naxerakoak



agindu zuen 1074tik 1138raino, eta ondoren Donemiliaga Kukuilakoak hartu zuen erreleboa, 1431 arte.

Erdi Aroko hartan Estibaliz bigarren mailako Etxea izan zen, bere monjeak beste haietatik bildu eta Naxera eta Donemiliagako ena netara bizi zena. Beti uste izan da, onenean ere, monje taldetxo txikia zela Estibalizen bizi zena, eta seguruenik monjeren bat edo beste zuela, inor gehiagorik gabe.

Santuetegiaren zaintzaileok bertako eliza gordetzeko zeuden, erromesei beren zerbitzuak eskaintzeko eta, inguruetako herrixketako premiarik agerikoenetan laguntzeko. Bazituzten lur batzuk, baina ondare handirik gabe. Estibaliz garai haietan barkamen-lekua zen batez ere, sakramentuak eskainiz eta urteroko barkamen zibilen ospakizunetan parte hartuz.

Parentesi luze baten ondoren (1431-1923), Estibalizek komunitate beneditar berria izango du bertan. Gasteizko Diozesiak eta Arabako Foru Aldundiak lagundu zuten horretarako erabakia, nabariagoa baitzen Andre Maria hau koroatu zenetik horrelako zerbaiten beharra.

Silos-ko Monasterio beneditarrek (Burgos) bidali zituen lehenengo monjeak, eta, hortaz, Silos bezala Solesmes-ko Kongregazioaren barruan gertatu zen Estibaliz. Baina Monasterio berriak monje gutxi izanik bere zailtasunak izan zituen, nahiz eta, bestalde, 1941ean Andre Maria honi Arabako Zaindaritza aitortu zitzaion.

Bokazio berrien itxaropenez eta Euskal Herriarekin engaiamendu estuago baten bila, Estibaliz Lazkaoko beneditarrekin senidetu

zen, eta Subiaco-ko Kongregazioan sartu, Montserrat lehenagotik zegoen bezala. Aita Mauro Elizondo izan zen aldakuntza honen gidari eraginkorra.

Lehenengo goraldi txiki baten ondoren, bokazioak urritzean monje-taldea ezin izan da sobera handitu, eta urteren batean 27 lagun ziren lekuan gaur egun 8 monje eta monjegaiek osatzen dute Estibalizko Komunitatea (2010).

### Arte erromanikoan

Estibalizko eliza erromanikoa da, zinez erromaniko ederra. J. M. Azkarate arte-historialari eta kritikari ezagunak azterlan estimagarria eskaini zion eliza honi, baina batez ere bertara joan eta ikustekoa da eliza hau.

XII-XIII. mendeetan jarri behar da elizaren erakuntza nagusiena, juxtu erromaniko betebeteko hamarkadetan. Beneditarrek desagertu zirenetik XIX. menderaino eliza hondatuz joan arren (1860-1906.etan elizkizunik ere ez zen ospatu bertan), XX.ak dena zaharberritu du, Santiago Ospitaleak Santutegia Gasteizko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari utzi zirenetik. 1904an hasitako hobekuntzak beren xede artistikoak ongi lortu dituzte.

Eder-zaleak arretaz begiratzekoak ditu Estibalizen fatxada eta absideak, ate eta arkuak, zutabe-buruak eta harlandu ederrezko irudiak, edo bataio-pontearen kaperatxoak. Horrela, otoitz-leku bezain arte-gune gertatzen da Santutegiko eliza.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharrak: 610273580*